

EH: «Zenbat mespretxu gehiago ikusi behar dute EAJk eta EAK Kongresutik joateko?»

Madrilak «euskaldun espainiar» izateko aukera baino ez duela uzten diote

Aitziber Iartza / Donostia

Madrilgo Kongresuan Jose Maria Aznarrek Euskal Herriari buruz esandakoak izan zituen atzo hizpide EHk. Aznarrek «orain arteko immobilismoa berretsi» duela esan zuen Otegi: «Espainia nazio gisa egituratzea lehen helburutzat duela adierazi zuen Aznarrek, eta horretarako tresnak Estatutua eta errepresioa direla». Hala, EAJri eta EAri «Madrili begira egon gabe, subiranotasunaren aldeko apustua» egiteko eskatu zien EHk.

EHren ustez, Espainiako Kongresuan egunotan izaniko inbestidura saioa «argigarria» izan da, «agerian utzi baititu Aznarren immobilismoa eta atzerakoitasuna».

Lehenik eta behin, Arnaldo Otegi gogoratu zuen Aznarrek lehentasun gisa «Espainia nazio gisa egituratzea» jarri zuela. Horretarako, Gernikako Estatutuaren «defentsa sutsua» egin zuela esan zuen. «Espainia egituratzeko Estatutua aipatzen dute, eta logikoa da, Estatutua Espainia egituratzeko eta Euskal Herria desegituratzeko sortu baitzen».

Halaber, Aznarrek pluraltasun hitza ahotan izan arren, euskaldunei uzten dien aukera bakarra «euskaldun espainiarra edo frantseza» izatea dela salatu zuen. Aitzitik, ezker abertzaleak planteatzen duen esparruan aukera guztiek leku dutela esan zuen.



Joseba Permach eta Arnaldo Otegi, atzo, prentsaurrekoa emateko prestatzen.

«Gizartearen nahia azaltzen dute Udalbiltzaren igandeko ekitaldiek»

JOSEBA PERMACHEK egungo egoeran egin beharrekoa azaldu nahi izan zuen. «Madrilen eta Parisen borondaterik ez bada go arazoari aterabidea emateko, zein da bidea Euskal Herria egoera demokratiko batera eramateko? Guk proposatzen dugu Madrili eta Parisi begiratu gabe euskal demokrazia eraikitzea, eskubideak praktikara eramatea», azaldu zuen.

Hala, herritarrek ere bide horren aldeko jarrera dutela esan zuen EHko

eledunak. «Aberri Eguneako Udalbiltzaren ekitaldietan milaka lagunek parte hartu zuten, iaz baino lagun gehiagok. Herritarrek babesa eman zioten Udalbiltzari eta eskubideak aldarrikatzearen estrategiarri», esan zuen permachek.

Hala, Udalbiltza «mamiz» betetzeko deia egin zuen, eta EAJ eta EAri eskatu zien herritarrek adierazitakoa entzun eta apustu egin dezatela subiranotasunaren alde, «subiranotasun praktikoaren alde».

Azkenik, Aznarrek «errepresioa areagotzeko egin iragarpena» gaitzetsi zuen. «Denak espetxera errezetarekin jarraitzen du, eta ez da soilik ezker abertzalearen edo abertzaleen aurkako errepresioa, Euskal Herriaren eskubideen aurkakoa baizik», salatu zuen.

Hau guztia ikusita, pozik azaldu zen EHk abstentzioa bultzatu zuelako, eta galdera bat egin zien EAJ eta EAri. «Zer gehiago entzun eta ikusi behar dute Madrilen?; are mespretxu gehiagorekin tratzea onartuko al dute, tribunara igo, euskal nazionalitatea aldarrikatu eta bertatik alde egiteko?». Otegiaren aburuz, Euskaldun direla aldarrikatu beharko lukete, «euskal populuaren duintasunaren izenean, euskal herritarren borondateri mespretxu eta barre egiten baitiete».

Frantziako diputatu sozialista baten bisita jaso zuen Asier Ormazabal presoak

Jose Luis Erostege gose greba utzi du 34 egun eta gero

Erredakzioa / Donostia

CHATEADUNEKO espetxean Frantziako diputatu sozialista baten bisita jaso zuen Asier Ormazabalek, euskal presoak gutun batean azaltzen duenez, eta Senideak elkarteak jakitera eman duenez. Apirilaren 11n izan zuen bisita, gose greban zela hain zuzen ere —joan den astelehenean utzi zuen 34 egun eta gero—. Ormazabalek euskal presoaren egoera eta errebindikazioen berri eman zion, eta diputatuak euskal presoak arruntak direla eta Espainian nahiz Frantzian demokrazia dagoela erantzun zion. GAL eta torturari buruzko gaiak ere atera zituen presoak, diputatuaren haserrearekin. Eztabaida horren lekuko izan zen une hartan presoak aztertzen ari zen erizaina, gutunean azaltzen duenez.

Bestalde, Jose Luis Erostege Antzuolako presoak herenegun utzi zuen gose greba, 34 eguneko baraualdiaren ondorioz ahalade handia zuelako. Hain zuzen ere, herri horretako udalbatzak mozio bat onartu du euskal presoek gose greba hasteko izan duten arrazoiekin bat eginez.

Azkenik, Huelvako espetxean dauden euskal presoak bakartu egin dituzte, Aberri Egunean Ikurrina jarri zutelako euren lanak egiteko erabiltzen duten gelan. Egoera salatu zuten preso sozialak ere zigortu dituzte.

Hiru preso ohi atxilotu ditu Espainiako Poliziak Bizkaian, zigorra betetzeko

Horietako bik zigorraren hiru laurdenak beteak dituzte eta aske beharko lukete

Erredakzioa / Donostia

ZIGOR LARREATEGI, Goio Martin eta Igor Fullaondo preso ohiak atxilotu zituen atzo Espainiako poliziak, Bilbon, Basaurin eta Santurtzin. Hiruren kontra bilatze eta atxilotze agindua emana zuten, dagokien zigorra betetzen bukatzeko.

Zigor Larreategi herenegun eguerdian atxilotu zuten, Bil-

bon, eta epailearen aurretik pasa ondoren, Basauriko espetxera eraman zuten. 1994an atxilotu zuten eta zortzi urteko zigorra ezarri zioten. 98an aske utzi zuten, zigorraren erdia bete zuelako eta jarritako errekurtsioaren ebazpenik jaso ez zuelako. Auzitegi Gorenak zortzi urteko zigorra berretsi du.

Egoera berean aurkitzen da Goio Martin, zeina atzo

goizean atxilotu baitzuten, Basaurin. 1994an espetxera utzi zuten eta 98an aske utzi. Beraz, biek zigorraren hiru laurdenak beteak dituzte eta baldintzapeko askatasunean beharko lukete.

Bestalde, Igor Fullaondo Santurtzin atxilotu zuten atzo. Fullaondo 95ean atxilotu eta 96an aske utzi, milioi bat pezetako bermea ordaindu ondoren.



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

AURREINSKRIPZIOA IKASLE OFIZIAL IZAN NAHI DUTENENDAKO IRUÑEKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALEAN 2000-2001 IKASTURTEA

Alde batetik ikasle berriendako eta bertetik lehendik ikasle diren baina aurtengo ikasturte honetan matrikulaturik ez daudenendako aurreinskripzioa maiatzaren 2tik 19a arte izanen da, asteleheneetik ostiralera, 9:30etatik 13:00ak arte eta 16:00etatik 19:00ak arte.

Ikasturte honetan libre matrikulaturik dauden ikasleendako aurreinskripzioa noiz izanen den azterketa eta hauen agiriak jasotzeko egunen berri ematearekin batera ezagutaraziko da Eskolako iragarki taulan.